

Herensugearen malkoak

Helburua*

1. **Bakea pertsonen** arteko konfiantzan oinarritzen delako ideiaz hausnartzea.

Dinamika*

1. Elezahar japoniar bat irakurtzea

Ariketari ekiteko, irakasleak esango die testu bat irakurriko dutela: egile ezezaguneko elezahar japoniar bat, '**Herensugearen malkoak**'.

Ikasleek ozen irakurriko dute elezaharra. Bost taldetan bil daitezke. Testuaren zati bana emango zaie taldeei.

TESTUA:

1. Taldea:

Urrun, oso urrun, herrialde bitxi bateko haitzulo sakon batean, herensuge bat bizi zen. Haren begiek egur gori-goriak bezala egiten zuten dir-dir. Inguruko jendea beldur zen, eta espero zuen norbait herensugea hiltzeko gauza izatea. Amei ikara ematen zien herensugeari buruzko kontuak entzuteak, eta haurrek isilean negar egiten zuten, herensugeak entzungo zituelako beldurrez.

2. Taldea:

Baina bazen mutil bat, beldurrik ez zuena:

- Taró, nor gonbidatuko dut zure urtebetetze-festara?
- Amatxo, herensugea gonbidatzea nahi nuke.
- Txantxetan ari zara? – erantzun zion amak.
- Ez, esan iezaiozu herensugeari etortzeko – esan zion berriz mutilak.

Amak buruari eragin zion, nahigabetuta: ez da posible, nola liteke nire seme honek halako ideia arraroak izatea!

3. Taldea:

Urtebetetze-eguna iritsi zen, eta Tarók etxetik alde egin zuen. Mendian ibili zen, uharrak eta basoak zeharkatuz, herensugea bizi zen mendira iritsi arte.

- Herensuge jauna! Herensuge jauna! –oihu egin zuen sutsuki.
- Zer gertatzen da, ordea? Nor ari zait deika? –pentsatu zuen herensugeak, eta burua atera zuen haitzulo handiaren ahotik.
- Gaur nire urtebetetzea da, eta gozoki pila bat prestatuko ditu amak – esan zion garrasika mutilak. Zu gonbidatzeko etorri naiz.

Herensugeak ezin zuen entzundakoa sinetsi, eta mutilari begiratzen zion, ahots zakarraz marmarrean. Taró, ordea, ez zen beldur, eta oihuka esan zion:

- Herensuge jauna! Etorriko zara urtebetetze-festara?

4 Taldea:

Herensugea konturatu zen mutila benetan ari zela. Hunkituta, hau pensatu zuen:

- Gorroto naute denek, eta beldurra didate. Inork ez nau sekula gonbidatu urtebetetze-festa batera. Ez nau inork maite. Zer txintxoia den mutil hau!

Pentsamendu horiek buruan zituela, begietatik malkoak irteten hasi zitzaizkion. Hasieran, malko gutxi batzuk besterik ez; baina, gero, ezin zion negarrari eutsi, eta malkoek bailaran behera zihoan ibaia sortu zuten.

- Zatoz, jar zaiten nire zerraren gainean –esan zion herensugeak negar-zotinka– etxera eramango zaitut.

Herensugea gordelektutik ateratzen ikusi zuen mutilak. Narrasti ederra zen: kolorezko ezkata meheak zituen, suga bezain bihurria zen, eta hanka mardulak zituen.

5 Taldea:

Taró animalia basatiren bizkarrera igo zen, eta herensugea igerian hasi zen malko-ibaian behera. Igerian ari zela, animalia

gorputzaren itxura eta tamaina aldatu egin ziren, magia bitxi baten eraginez. Mutila etxera iritsi zen, zorionsu, herensuge-itxurako txalupa apaingarri politez josi baten lema eskuan zuela.

2. Testua denen artean aztertzea

Ikasleei honako galdera hauei buruz zer iritzi duten galdetu:

- Nola bizi zen jendea?
- Jendeak zergatik ez zuen ezer egiten?
- Zer egin zuen Tarók? Zergatik?
- Eta herensugeak?
- Zer magiak bihurtu zuen herensugea txalupa?
- Elezaharraren antzeko egoerarik gertatzen da zuen inguruan? Hala bada, nor da herensugea? Zer egin dezakezue txalupa bihur dadin?

3. Benetako egoera bati buruzko lana egitea

Ikasleek aipatzen dituzten egoeretako bat aukeratu behar du irakasleak.

Egoera hori zenbait zatitan bereizi behar du (hasierako egoera nolakoa zen, nork egin zuen zerbait egoera aldatzeko, nola aldatu zen...). Irudikatzeko modukoak izan behar dute zati horiek.

Gero, ikasle-talde bakoitzari eskatuko dio (baliteke hasierako talde-kopurua aldatu behar izatea) benetako egoeraren zati bati buruzko marrazkia egiteko eta esaldi batzuk idazteko, istorioa elezaharraren antzera kontatu ahal izateko.

Taldeko kide guztiek marraztu behar dute zerbait marrazkian (ados jarri behar dute, konfiantza izan behar dute taldeko gainerako kideek egiten duten horretan...).

Kartoi mehetan egin daitezke marrazkiak. Gero, ordenan, bata bestearen atzetik jarri behar dira gelan, komikia izango balitz bezala.

4. Ekintza sinbolikoaren prestakuntza

Ipuina eta benetako egoera aztertu ondoren denen artean bakearen kontra doazen jarrerak pentsatu beharko dituzte. Ideia hauek bildu ondoren paperetean idatzi edo marraztu beharko dira. Paper hauek DENIP egunean eraikiko den harresian erabiliko diren zuku edo esne-kaxa hutsak estaltzeko balioko dute.

Ikasgelan lanean jarraitzeko:

Mundu zuzenagoa eta baketsuagoa eraikitzeko ahalegina ezin daiteke egun bakar batera mugatu. Hori dela eta, Intermón Oxfam-etik proposamen didaktiko batzuk egin nahi dizkizuegu ildo horretan lanean jarraitzeko:

- **Bakea eraiki dezagun** monografikoa (4 orduko unitate didaktikoa). Bakeari, indarkeriari edo gatazkari buruzko hausnarketa proposatzen du. Gatazken aurreko jarrerak ebaluatzea du asmoa, arazoei irteera kooperatiboa eskaintzeko.

Material hori web-etik deskargatu dezakezu (www.IntermonOxfam.org/educar/monograficos) edo **902 330 331** telefonoaren bidez eros dezakezu.

- **Armak kontrolpean** maleta pedagogikoa. Ikasleentzako eta irakasleentzako hainbat materialek eta baliabidek osatzen dute proposamen globalizatu hau. Proposamenak helburu hauek ditu: armek gizartean duten eragina ezagutzea, indarkeriaren kultura indargabetuko duten balioak eta jarrerak sustatzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beste bide batzuk aurkitzea.

Hemen aipatzen diren materialek osatzen dute maleta; material horiek guztiak batera edo bakarka eskuratu daitezke

902 330 332 telefono-zenbakira deituta:

- **Dossier informatzaile bat:** "Vidas destrazadas".
- **DVD bat:** Kontroletik kanpo
- **4 lan-koaderno:**
 - Haurren zikloa: "Memed-en oparia"
 - Lehen zikloa: "Ezusteko bisita"
 - Bigarren zikloa: "Koloretako tximeletak"
 - Hirugarren zikloa: "Bakearen aldeko oihua"
 - 2 gidaliburu didaktiko: haurren zikloa eta 1. zikloa; eta 2. eta 3. zikloak
 - 1 ginkana: "Huamborako bidean"